

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

60/2025 Mozioa, ekainaren 25ekoa, Arabako udalek Valentzian tanta hotzak edo DANak kaltetutako pertsonentzat emandako materiala kudeatzeari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2025eko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

60/2025 Mozioa, ekainaren 25ekoa, Arabako udalek Valentzian tanta hotzak edo DANak kaltetutako pertsonentzat emandako materiala kudeatzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek beren esker ona eta aintzatespena helarazi nahi diete, modu batera edo bestera, DANaren biktimei arreta ematen lagundu duten pertsona, kolektibo eta erakunde guztiei, eta haien atsekabea agertzen dute herritarrek eta toki-erakundeek egindako ahalegina ezin izan zelako iritsi Valentziako Erkidegoan DANak kaltetu zituen pertsonengana.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari, Eudeli eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete protokolo argi eta eguneratu bat egin dezatela, sektorearen aholkularitza espezializatuarekin, beste lurralde batzuei eragingo dieten hondamendi naturalek sortutako larrialdietan premiazko laguntza humanitarioa bidaltzeko, eta eskatzen diete hiru hilabeteko epean Arabako Batzar Nagusietan aurkez dezatela protokolo hori.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote etorkizuneko hondamendien kudeaketa idatziz eta sistematikoki egin dadila, baloratu eta, hala badagokio, hobetu ahal izateko.

4. Onartutako mozioaren kopia bidaliko zaie Eusko Jaurlaritzari eta Eudeli.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 25a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA